

LAZKAO ▶ GIZARTEA

Lau hamarkadaren ondoren berrituta

Lazkaoko Domarda elkarteak mende laurdena bete du; orain, egoitza berria prestatzen ari dira



Joxe Mari Ormazabal eta Tomas Arratibel, Domarda elkartearen betiko egoitzan. A. APALATEGI

ARKAITZ APALATEGI

Hartu zutenean borda zahar bat omen zen. 1962. urtea zen. Artean Franco bizirik zegoen, eta ez zen erraza honelako elkarte bat sortzea. «Herriko koadrila batzuk elkartu eta kultur elkarte bat sortu genuen. Behartuta liburutegi bat ere jarri behar izan genuen, baina guk elkarte gastronomiko moduan funtzionatzen genuen». Hala dio Tomas Arratibel, elkartearen sortzaileetako batek.

Berrogeita hamalau bazkide zituen orduan elkarteak. Lau hamarkada geroago, 130 dira elkarte osatzen dutenak. Arratibelek dionez, «jende gazte asko sartu da, eta orain adin guztietakoak gaude elkartearen». Orain gainera, egoitza berria prestatzen ari dira. Lokal honek bi zati izango ditu; batetik, elkarte bera, 180 metro koadroko lokal bat, sukal-

de, jangela eta abarrekin. Bestetik, biltegia eta elkartearen bulegoa izango dituen lokal txikiago bat, berrogei bat metrokoa. Amalur mendi sailak ere bulego bat izango du bertan. Egoitza berria Areso kalean dago; «primerako lekua» ki-deek diotenez.

Aldaketa honen arrazoi nagusia, aurreko egoitzaren baldintza eskasak izan dira. «Hemen obra bat egitea baino hobeto ateratzen zitzaigun egoitza berria erostea». Horretarako, batzorde berezi bat sortu zuten elkarte sei lagunek. Hauetako bat da Joxe Mari Ormazabal. Berak azaldu digunez, «lekua aukeratzea, kalkulatu ekonomikoak egitea edota kuotetan suposatuko lukeen igoera kalkulatzeari» izan dira batzorde honen lanetako batzuk. Domarda elkarteak hartu duen egoitza Lazkaoko Udalerena zen. Enkantean jarri zuten, eta «baldintza onak» zitue-

la ikusita, erostea pentsatu zuten. «Kontuak atera eta animatu egin gara azkenean».

Elkarte bezala, aipagarria da Domardak herri mailan duen parte hartzea. «San Migeletan eta San Prudentzioetan gauza ugari antolatzen ditugu». Besteak beste, bakailao lehiaketa, sardina jana edota sagardo dastaketa. Amalur elkarteak ere hainbat ekintza antolatzen ditu urtean zehar.

Izenaren historia

Duela 44 urte, Lazkaoko hainbat gazte erregistro zibilera joan zirenean, «izenik pentsatu ere egin gabe» joan omen ziren. Batek ordea, Domarda proposatu omen zuen. Domarda, Agauntza eta Sustraitz errekek bat egiten duten lekuan dago. «Gu han ibiltzen ginen jolasean, igerian ere han ikasi genuen». Horregatik jarri omen zioten Domarda izena.

GOIERRI ▶



Ataun eta Lazkaoko haurrak Seguran izan ziren. J. APALATEGI

Tobera eta Lazkao Txiki bat eginda

80 bat musikari bildu ziren herenegun Tobera eta Lazkao Txiki musika eskolen arteko elkartrukean. Oraingoan, Ataun eta Lazkaoko ikasleak izan ziren Segurara joan eta kontzertua eskaini zutenak. Urtean zehar ikasitakoa erakusteko aukera izan zuten, aterpetxean bildutakoan aurrean. Baina elkartruke honek, atzera bigarren aldiz elkartzeko aitzakia emango die bi eskoletako ikasleei. Hori, maiatzaren 25ean izango da Ataunen. Orduan, Segura, Zerain eta Zegamako gaztetxoak izango dira protagonista.

LAZKAO ▶

'Oiangu Bizirik' hitzaldia gaur eskainiko dute

Lazkaoko Gazte Asanbladak antolatuta, Oiangu Bizirik izeneko hitzaldia izango da gaur iluntzean Lazkaon. Aditu batek, Oiangu egin nahi duten proiektuari buruzko argibideak emango ditu. Hitzaldia, iluntzeko 19:00etan izango da, Kultur Etxean. Gazte Asanbladatik, «Lazkaotar eta goierritar orori luzatzen diogu gonbitea».

LEGORRETA ▶

'Lila dice' filma eskainiko dute gaur zineman

Legorretako herri zineman, Ziad Doueiri zinemagilearen *Lila dice* filma eskainiko dute gaur gauean. Lila, hamasei urteko Lolita bat da, inguruko guztiak txoritzen dituen. Ama eta biak auzo arabiar batera joango dira bizitzera, bidaia iniziatiko bati hasiera emanez. Emanaldia, gaur gaueko 20:30etik aurrera izango da.

ATAUN ▶

Talo jana bertan behera gelditu da

Artadi elkartetik jakinarazi dutenez, larunbat honetan egitekoa zen talo jana bertan behera gelditu da, txartel gutxi saldu direlako. Erosita zutenei, «sorturiko eragozpenak barkatzeko» eskatu diete. Ordaindutako dirua berreskuratzeko, erosi zuten lekura jo behar dute. Bestalde, aurrikusita bezala, San Gregorioko jaien DVD emanaldia mantendu egingo da. Larunbat iluntzeko 20:00etan izango da, San Gregorioko elkartegian.

hilberria ▶

Joxe Aldalur

(Begoña gure hautetsiaren aita)

*Adiskide kuttun, lagun zorigabe
azpildu-gabeko biotzaren jabe,
onerako zabal, ederrak su-bera;
hatorkit, Joxe, gaur oroienera!*

Lizardi

Tolosa Bizirik

TOLOSA, 2006ko martxoaren 23a

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 16 00 56

goierri@goierrikohitza.info